

EDITORIALA

Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

Irakurle, sei artikuluz osatutako *Uztaroren* zenbaki berri bat duzu aitzinean. Giza eta gizarte-jakintzetako arlo desberdinetatik jorratutako gaiak aurkituko dituzu. Zientzia-interesa kontuan izanez artikulua denek daukate bakoitzak bere balioa. Horregatik onartu ditugu aldizkarian argitaratzeko. Baina, gure gizartean, azkenaldi honetan, darabiltzagun kezkei eta eztabaidei erreparatuz garrantzizkoa deritzot giza eta gizarte-jakintzaren planteamendu mailari atxikiz «Bilboko txabolismoa» izeneko artikulua dakarren ekarpen informatzailea azpimarratzeari. Ikus noiztik datorren etxebizitzaren beharra euskal gizartean eta zein ardura eskasarekin erantzun izan dioten arazo horri ardura zuzena izan duten erakundeek. Gizartean bitartekari-eginkizuna duten alderdi, sindikatu eta elkarteak ere zirikatzen balio beharko luke artikulua. Arazoari perspektiba historikoa emateak akuilukadaren eragina ukan baleza, jakintzak gizartearekin lotzen ari garela adieraziko genuke. Era berean, gaurkotasunez beterik dator «Erretiratuen soslai berria konstruktua teoriko gisa» artikulua, balizko ezaugarri soziodemografiko eta psikosozilogikoak aztertzea helburu duena. Baita tratu txarrak jasan dituzten haurren arazoak eta zailtasunak agertu nahirik egindako ikerketaren ondorioz idatzitako artikulua ere.

«Lidergoa eta enpresa: lidergorako potentziala, jatorria eta enpresako rol nagusiak» artikulua, lidergoaren gaineko planteamendu klasikoetatik harago lidergoaren izaera denok, gehiago edo gutxiago, daramagun gaitasun unibertsaltzat landu behar dela agertzera dator. Ezaguna denez, lidergoaren dimentsioa edozein antolamenduren arrakasta edo porrota neurri handi batean azaltzen duen faktorea daukagu. Horretarako enpresaren funtzionamendua agertzean, gogora dezagun, hiru paradigma aipatu izan direla nagusiki: enpresa, makineria bezala aztertu izan duena; izaki bizidunez osatuta ikusi izan duena; eta kultura propioko unitatetzat hartu duena. Lidergoaren eraginkortasunaren ezaugarriak kontuan, lidergoaren faktorea urri samar aurkitzen dela enpresetan, argi dago. Konplexua den faktore multzo hori esaldi batekin adieraz dezakegu: ingurumaria ulertzea, alegia. Baina beharrezkoa da gutxiengo gaitasun intelektuala eta pertsonala izatea. Garrantzitsua den bezala harreman onak lortzeko gaitasuna. Zintzotasuna eta zuzentasuna funtsezkoak direnez. Azkenik, bizitasuna eta energia ukaitea. Horrek baitakar motibazio handiko pertsona izatea, norberarengan konfiantza duena, alegia. Oro har, defendatzen den ideia da, lidergorako potentziala areagotzeko posible dela heziketa eta entrenamenduaren bidez gaur egun egiten dena baino askoz gehiago egitea. Hori horrela, galdetzekoa da ea liderra jaio ala egin egiten ote den? Argi dago lidergoaren ezaugarri gutxi batzuk besterik ez direla liderrak berezko dituenak. Esperientzia profesionalean oinarritzen dira ezaugarri nagusiak. Liderrarena heziketa dela nagusiki. Enpresek, bada, langileei giro aproposa eskaini behar diete lider eraginkorrek izaten ikasteko. Onuragarri da gaztetan zenbait aukera aurkitzea lider jarduteko. Lidergorako gaitasuna bi elementuren baitan dago: bere eraginpeko pertsonen kopuruarenean, eta eragin horren kalitate edo intentsitatearenean, alegia. Hala ere, aitortu behar da,

lidergorako potentziala ez dagoela pertsona guztien artean modu orekatuan banandua. Lidergo potentziala lau faktoreren bildumak gorpuzten du. Herentzia biologikoaren eta hartzaroren lehendabiziko esperientzien fruitua izaten den talentua da lehena. Talentuen tipologia ere egin beharrekoa da. Talentu mota desberdinak baitaude. Bigarrena jarrerren garrantzian datza. Lidergorako potentziala gizabanakoa murgildurik dagoen ingurune, klima sozial edo kulturalaren araberakoa izan ohi da. Jarrerak piztu eta moldatzea, bene-benetan, ezagutzak transmititzea baino askoz zeregin konplexuagoa da. Berrito ere hezkuntzarekin topo egiten dugu. Balio, sinesmen eta ideologiak hezkuntzari esker garatzen baitira. Hirugarrena abilezien garrantzia da. Abileziek jatorri fisikoa, intelektuala edo emozionala izan dezakete. Azken bi abileziek lehenak baino garrantzi handiagoa dute. Enpresa-munduko liderrek dohain egokiak izan ohi dituzte elementu heterogeneoak koordinatzeko. Azken funtsean horrelako lidergoaren muina beste pertsona batzuen jokabidean eragiteko gaitasuna baita, beste ezeren gainetik. Zenbait pertsonak era jasoan daukan intuizioa ere lidergorako potentzialaren baitakotzat har liteke. Laugarrena ezagutzen garrantzia da. Intelektualak bai, baina berdin ere ez intelektualak. Gaur egun, enpresa oro arduraturik dago bere aktibo zientifiko eta teknikoak zaharkituta gera ez daitezen. Ezinezkoa baita «antolamendu inteligenteekin» lan egitea robotak gizakiak bailiran hartuz. Are gehiago zuzendaritza profesionalen aroan bizi garenean. Enpresaburua, zuzendaria eta liderra dira edozein enpresaren sorreran eta biziraupenean gehien eragiten duten rolak. Hiru rol horiek elkarren osagarri dira. Enpresaburu ekintzailea sarritan patroia edo jabea izaten da, eta epe erdiko edo luzeko helburuen lorpena lehenesten du. Zuzendari exekutiboak soldata baten truke lan egin ohi du, eta epe laburra gehiago lehenesten du. Enpresa-liderra etorkizuneko egoera irudikatuz gainerako agente guztiak horretaratzen saiatzen dena da, eta pertsonen motibazioa du jokabidean ardatzeko. Gaur egungo egoera aldakor eta gorabeheratsuan liderrak inoiz baino garrantzi handiagoa hartzen du berea den bisio motibagarriari esker. Lidergoa boterearekin loturik dago eta ezaugarri jakin batzuen jabe da: gidaritzatza du; interesak bateratzen daki; motibatzailea da; pertsonen lehenetsua ematen daki; denbora erritmo desberdinetan banatzen daki; arriskuak ikusiz hartzen trebea da; eta jardueraren emaitza taldeak epaitzeaz ez du beldurrik. Bistan da hau guztia esanik, lidergoa faktore urri eta bakana gertatzen dela. Halaz ere, lidergoa fenomeno unibertsaltzat aitortu behar da. Lau faktore eta hiru rol onartu zaizkio artikulu honetan lidergoari.

«Bilboko txabolismoa. XX. mendearen erdialdeko auzo autogestionatuak» artikulua, Bilbon industrializazio-prozesuaren hastapenetik agertzen joan ziren etxebizitza-arazoak seinalatzera dator. XIX. mendearen bukaeraren eta XX.aren hasieraren artean, Atxuri, Bilbo Zaharreko auzo garaiak... Bilboko lehen aldiriak eratzen joan ziren. XX. mendearen 50eko hamarkadako bultzada industrial berriarekin areagotu egin zen immigrazio-fluxua eta txabola-auzoak Bilbo inguratzen duten mendi-magal gehienetara hedatu ziren. 40ko hamarkadan, urtean 3.000 etorkin heldu ziren hirira. 50eko hamarkadan, berriz, 5.000 ziren urteko. 50eko hamarkadaren bukaeran txaboletan bizi zirenak 30.000 ziren, Salazarren aburuz. Aurrez aipatuei periferiako Peñaskal, Masustegi, Cabras mendia eta beste auzo batzuk gehitu zitzaizkien. J. I. Ruiz de Olabuenagak hiru zio aipatzen ditu txabolismoaren agerpena deskribatzeko orduan: presio demografikoa, lurzorua

espekulazioa eta erakundeen planifikazio falta. Lehen konponketa-saioa 60ko hamarkadan ailegatu zen. Orduan jarri baitzen abiadan Bizkaiko Larrialdi Sozialeko Plana. 1965ean oraino 15.000 ziren txaboletan bizi zirenak. 80ko hamarkada arte iraun zuen arazoak. Gure egun ere ageri dira Masutegi, Kobeta edo Buia auzoetan, adibidez. Saiogileak bere lanerako zenbait iturri erabili ditu. Ahozko lekukotasunak dakartza hasteko. Iturri idatziak ere ez dira falta. Bestalde, ozenki diosku hiriburuko nukleoak ikertzeraz mugatzen dela, inguruko herrietan sorturiko auzoak hurrengo baterako lagaz. Artikuluaren lehen bi ataletan txabolismoaren garapen-markoa eta txabolen ezaugarri orokorrak agertzen zaizkigu. Markoari dagokionez, Bilbon benetako hazkundea, Lehen Mundu Gerrarekin etorri zela erakusten da. Estatu mailan, foku industrialak sortzen joan ziren berean nekazaritza-ustiaguneen mekanizazioa gertatu zen. Horrela, Bilbo hiri hartzaile bihurturik 1950-1960ko hamarkadan % 41,68 hazi zen. 1960-1970ko hamarkadan, berriz, % 42,2 hazi zen. Etxebizitza eskasia nabarmendu zen berehala. Txabolismoaren fenomenoaz gain, eta aldi berean, pisu konpartituak, subarriendoa, «patronak», «vecinak» eta abar zabaldu ziren. Estatuaren etxebizitza-politika ahula bezain motela gertatu zen. 1911ko uztaietan agertzen da lehen aldiz «etxe merkeen» legea. 1920ko uztaietako dekretuz alokairuak izoztu ziren. 1946an Hiri Alokairuen Legea emango da. Etxebizitza berrien eraikuntza gerra zibilaren ondotik motel-motel helduko da. 1939ko apirilean *Instituto Nacional de la Vivienda* elkarteak etxe babestuen figura sortu zuen. 1944ko azaroaren 25eko legeak etxebizitza hobaridunen figura dakar. 1946an onartu zen Bilbo eta bere inguruetarako Plangintza Komarkala, eta Bilbo Handiko mankomunitatea eratu zen. 1954an etxebizitza babestuen arlorako lege berria egin zen. 1955ean Lehen Plangintza Nazionala agertu zen. 1956an Lurzoruaren Legeak planifikazio berri bat sustatu nahi izan zuen. 1957an, azkenik, Etxebizitza Ministerioa eratu zen. Bizkaiari dagokionez, 1959ko dekretuaren bidez Giza Larrialdiko Plangintza onartuz, Etxebizitzako Ministerioa bost urteren buruan 50.000 etxebizitza eraikitza konprometitu zen. Ondorioz Otxarkoaga egitasmoa abian jarri zen. Aldi berean «Derribochabolas» deituriko plangintza bideratu zen.

Txabolen ezaugarri orokorrak komentatzean hau erakusten zaigu. Hasieran erdiguneko zenbait bazterretan txabolismoa garatu bazen ere, denborarekin hiriaren periferian kokatzen joan zela. Auzogune horien artean ez zela egon inongo harreman-sare artikulatzailearik. Sorturiko auzoguneak ilegalak ziren. Batetik, «Parke Gune», «Jarraiki Libre» eta antzeko tokitzat kalifikatutako guneean altxatu baitziren anitzetan. Bestalde, txabolismoa masifikatzen hasi zelarik galarazteko eta zigortzeko dekretu bat onartu baitzen 1955ean. Horrela, Iturrigorri auzoan hamaika txabola suntsitu zituzten urte berean. Hilabeteak pasatu ahala politika zorrotz hau leundu egin zen. Hala ere, 1970ean Etxebizitzako Ministerioak Udalarari diru-laguntza luzatu zion txabolismoaren aurkako kontrola egitearren. Eredu homogeneorik gabeko arkitektura zen. Etxebizitzaz gain eliza, eskola, eta beste eraikin batzuk zeuden horren guztiaren barruan. Auzo haiek ezerezetik jaio ziren, langile xumeen eskutik, alegia. Auzokideen arteko elkartasun handia pizten joan zen denborarekin. Antolatzeko moduak aldatu egiten ziren tokian-tokian. Argindarra aski laster eskuratu zuten. Baina, uraren kanalizazioa 70eko hamarkadan bakarrik heldu zen. Komunak 80ko hamarkadan egin ziren. Bizibaldintza latzak eta bazterketa soziala pairatu zituzten.

Jarraian, auzoen bilakaera historikoa, urtez urtekoa eta biztanle kopuruak kontuan izanez lau taulatan agertzen zaigu. Otxarkoagako egitasmoaz hainbat argitasun emanik, 15.000 pertsona eramanak izan zirela bertara esaten zaigu. Deigarria da, orobat, historia horren bilakaeran agertzen denean jakitea Los Caños auzoa desagertzeko egindako ahaleginen ondoren 70eko hamarkadan ijitoak izan zirela bertan gelditu ziren biztanle bakarrak. Artikulua ondorioz laburbildu nahirik hauxe esaten zaigu: 1950etik aitzina immigrazioaren bultzada berria sumatzen hasi zenean autoritateek ez zutela jakin izan jende haren harrera planifikatzen. Etxebizitza-politika ezin desegokiagoa ezagutu zen garai horren luzean. Bestalde, iritziak iritzi, esaten zaigu ere, ez zirela izan etorkinak auzo horietan bizitzen bakarrak, bilbotar jatorriko sendi ugari ere auzo horietan bizi izan zela. Baliabide urriak zituzten jendeak ziren beti, bestelako desberdinketarik kontuan hartu gabe, alegia. Otxarkoaga lorpen garrantzitsua izan zen. Beste auzo batzuentzat historia latzagoa izan da oraino.

«Euskararen garapena lehen hizkuntza legez eta morfologiaren agerrera mailakatuaren inguruan» artikuluak 16tik 30 hilabete bitarteko 975 haur euskaldunen hizkuntza-ekoizpena aztertzen du, lexikoaren eta morfologiaren garapenari zehatz begiraturik. Haurrek lehen hitzak urtebete inguru dutenean ekoizten dituztela esaten da, hitz biko ekoizpenak hamazortzi hilabete dituztenean erabiltzen hasten direla, eta morfologiaren lehen ezaugarrien erabilera urte bi izan aurretik lortzen dutela. Gramatikari dagokionez ere, ez da bat-batean gertatzen, era mailakatuan baizik. Eta anitz ikertzaile dago gramatika erabiltzen hasi baino lehen haurrak hitz kopuru minimo bat beharrezkoa duela aldarrikatzen duenik. Hitz biko ekoizpenak egiteko, haurrak gutxienez 51-100 hitzeko masa lexikoa behar duela ikusi da; izen-sintagmei eransten zaizkien marka morfologikoetarako 101 hitzetik gorakoa, eta aditzei eransten zaizkienetarako 301 hitz baino handiagoa. Ikerketa honetako helburua bikoitza da. Ekoizpen-mailan morfologiaren agerrera mailakatu dela baietsi nahi dugu. Eta morfologiaren agerrera mailakatu haurrek darabilten hiztegiarekin edo masa lexikoarekin erlazionatuta dagoela ere uste dugu. Metodologiari dagokionez, 16tik 30 hilabetera bitarteko 975 haurren datuak bildu dira «Hitzak eta esaldiak» izeneko galdetegia sortuz. Ingelesaren inguruan egindako beste baten egokitzapena da. Emaitzak, hasieran, datu orokorrak lau tauletan jasotzen dira. 1. eta 2. tauletan, morfologia-marken erabileraren agerrera adinaren arabera antolatuta agertzen da. 3. eta 4. tauletan, hiztegiaren edo masa lexikoaren arabera antolatutako datuak ematen dira. Morfologia-markak aditz-sintagmak baino goizago agertzen dira. Izen-sintagmei eransten zaizkien morfologia-markak, aldi berean sailkatuta daude. Plurala adierazteko euskaraz darabilgun marka, *-k* alegia, haurren % 30ek bakarrik erabiltzen dute 23 hilabeterekin. Ondotik, subjektuarekiko komunztadura adierazten duten adizki iragankorrak datoz, 25 hilabeterekin; etorkizuneko aspektua adierazten duen *-ko* marka, 26 hilabeterekin; eta azkenik, zehar-osagarriarekiko komunztadura adierazten duten adizki iragangaitzak (*zait/zaio*), 27 hilabeterekin. Hiztegi edo masa lexikoaren arabera ere nabarmena da izen-sintagmei eransten zaizkien morfologia-markak direla lehenak agertzen. Eta horien bariatatea bera ere sailkatuta dago. Esaldiei eransten zaizkien morfologia-markak agertzeko 501 hitzetik gora behar dira. Ikasten dira, halaber, izen-sintagmei eransten zaizkien morfologia-marken artean, kasu-markak, zenbait postposizio eta pluralaren marka. Tratamendu berezia du

ere aditz-sintagmei eransten zaizkien morfologia-marken agerrerak: aspektu burutugabea adierazten duen *-tzen* marka; subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten adizki iragangaitzak; adizki iragankorrak; etorkizuneko aspektua; eta zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten iragangaitzak. Bada, azkenik, esaldiei eransten zaizkien morfologia-marken agerrerari buruzko ikerketa. Beranduen agertzen direnak dira esaldiei eransten zaizkien hauek. Adinari begiratuta edo lexikoari so bereizirik agertzen dira. Ondorioetara igaroaz, nabaria da izen-sintagmei eransten zaizkien morfologia-markak goizago hasten direla agertzen aditz-sintagmei eransten zaizkienak baino; eta bigarren horiek ere esaldiei eransten zaizkienak baino goizago ageri direla. Aditz-sintagmei eransten zaizkien morfologia-marken artean ordenaturik lehena aditz-aspektua da. Aditz-komunztadura erakusten dutenen artean lehena, berriz, subjektuarekikoa da; zehar-osagarria dator ondoren; eta osagarri zuzena, azkenik. Esaldiei eransten zaizkien morfologia-marken artean sailkapena badago ere ez da hain nabarmena diferentziatzea. Morfologia-marka batzuen eta besteen agerrerak lexikoaren garapenarekin zerikusi handia duela konstatatu dugu. Haurraren euskararen garapena irudikatzen prediktiboena masa lexikoa dela ere garbi gelditu da.

«Erretiratuaren soslai berria konstruktua teoriko gisa» artikulua, balizko ezaugarri soziodemografikoak eta psikosozialak aztertzen dator erretiratu berriaren ezaugarriak izan daitezkeenak deskribatzeko helburuarekin. Testuinguru teorikotzat lau eduki azaltzen dira. Bat, erretirora egokitzeko prozesuaren teoria azaltzaileak. Bi teoriatan biltzen dira: Jardueraren teorian, eta Deslotuaren teorian, alegia. Bi, erretiro-prozesuan dauden faktore psikosozialak. Osasun fisikoa eta psikologikoa aztertzen dira eta erretiroaren eta osasun psikologikoaren artean ez dauka zertan agerturik depresioaren eraginak. Laguntza soziala eta gizarte-harremanak aztertzean hau adierazten da: laguntza sozialak estresa eta bizi-aldaketa negatiboen eragina gutxituz pertsonaren osasun fisikoa ez ezik, psikologikoa ere zaintzeko balio dezakeela. Diru-sarreraren erreferentzia funtsezko da ere. Pentsioen batez bestekoa goraka ari da. Pentsio hobekak dituztenek aukerak ere hala dituztela garbi dago. Astialdia eta aisia aztertzen direlarik adostasunik gabeko azterketa-alorra dela esaten zaigu. Erretiratuaren soslai berriaren ekarpenak aipatzean ere ikerlarien artean ez dago adostasunik. Beste batzuek nahiago izan dute zahartzaro berri batetik abiatu. Erretiratu berrien artean, besteak beste, erretiroa aurreratu dutenak aurkitzen ditugu. Egun erretiratzen direnek autokontzeptu altua adieraziko omen lukete. Erretiratu soslai berriaren ezaugarri soziodemografikoen artean leudeke: baliabide ekonomikoen izatea; gazte erretiratzea; hezkuntza-maila egokia izatea; eta beren etxean bizi izatea. Eta ezaugarri psikologikoen artean berriz: osasun fisiko ona; osasun psikologiko ona; osasun sozial ona, eta autokontzeptu positibo altua eta negatibo baxua edukitzea. Ikerketan, bada, erretiratuaren soslai berriarekin zerikusia duten adierazle soziodemografikoak eta psikosozialak aurkitzea espero zen. Metodoa, guztira 161 parte-hartzailek osatu zuten lagina osatuz hasten da. Donostiako eta Bergarako erretiratuaren elkarteetako 80 emakume eta 81 gizonekin egina da. Elkarrizketatuen batez besteko adina 66 urte izan zen. Erabilitako tresnak askotarikoak izan ziren. Hipotesi bakoitzarentzako bereziki hautatutakoak. Prozedura, erabilitako aldagai soziodemografikoak neurtzeko galde-sorta (Ad Hoc) gaztelanitik euskarara itzuli zen. Elkarrizketaren iraupena 40-45 minutukoa izan zen. Emaitzak, erretiratuaren

soslai berriarekin bat datozen ezaugarri soziodemografikoak eta psikosozialak lortu ziren. Batez besteko pentsioak Euskal Herrikoen azpitik daude, baina Espainiakoaren gainetik. Genero arteko desberdintasun esanguratsuak agertu ziren. Hezkuntza-maila baxukoak dira. % 66,5ek ez zuen gaixotasunik. Antsietateari eta depresioari buruzko emaitzak batez beste baxuak izan dira. Bizi-asebetetzeari buruzko emaitza, oro har nahiko altua da. Harreman sozialen maiztasuna eta asebetetzea ere altuak dira. Jarduera garrantzizkoenak aisialdikoak dira. Ondoren, osasuna zaintzearekin zerikusia duten jarduerak daude. Horren ostean, jarduera intelektualak. Emakumezkoek etxeko jarduera gehiago egiten dituzte gizonezkoek baino. Autokontzeptua batez beste positiboan dago. Erretiratuaren soslai berriarekin harremana duten ezaugarri soziodemografikoen eta psikosozialen arteko asoziazio-neurketek ere zerbait adierazten dute: diru-sarrera altuena dutenek bizi-asebetetzearen maila hobea daukatela; autokontzeptu positibo altuagoa; deigarria da, orobat, erretiro-adin goiztiarra izan dutenek bizi-asebetetzearen maila baxuagoa dutela konstatatzea. Bestalde, antsietatea, depresioarekin eta sentimendu negatiboarekin lotzen da. Konstruktua teorikoaren barnean agertzen diren aldagaien artean hipotesi nulua baztertu da, probabilitatea .05 baino altuagoa gertatu denez. Ondorioak azpimarratzekotan, lehena da azterketako laginak egungo erretiratuaren balizko ezaugarri soziodemografikoak dituela. Ezaugarri psikosozialen artean, erretiratu berriak erretiroa baliatzen du aukera pertsonal berriak gauzatzeko, ikasketa-maila hobetzeko, zenbait jarduera egiteko edota jarduera aktiboagoa izateko. Konstruktua teoriko berriaren balizko ezaugarrien artean, bizi-asebeteta sentitzea eta autokontzeptu negatibo maila baxua izatea ageri dira. Ikerketa honen helburu nagusia analisi faktorialaren bidez berretsi nahi izan bada ere, laginketa intzidentalak dela medio, ondorioz berezia izan dela esaten zaigu.

«Haurrei emandako tratu txarren ondorioak eta parekoekiko harremanak» artikulua gai samingarri bat lantzeraz dator. Tratu txarrak jasan dituzten haurrek adin berekoekin konparatuta harreman desegokiagoak garatzen dituztela garbi baitago. Ameriketako Estatu Batuetan, 1.000 haurretik 16k tratu txarrak jasotzen dituzte eta Europar Batasunean, 1.000 haurretik 2,8 dira. Euskal Autonomia Erkidegoan 1.000 haurretik 15 dira tratu txarren menpekoak. Nolanahi ere nonahi eta beti gehiegi. Tratu txarren ondorioak ondo dokumentatuak izan dira: haurren gan kalte fisikoak eta psikologikoak sortzeaz gain, gizarte-harremanetan ere eragin dezakete. Ekarpen teorikoak erreparatu haxe esan behar da: tratu txarrek atxikimendu segurua ematen duten harremanekin eta norberaren garapen autonomoarekin lotura daukatela. Tratu txarrak jasan dituzten haurrek gainerakoei buruz sortzen duten irudia bestelakoa dela, prestutasun eza, beldurra eta mesfidantza ikusten baitute besteengan, eta parekoekin duten harremanetan ere ezaugarri horiek nagusitzen direla. Bestalde, *Gizarte-informazio-lanketaren* ikuspuntuak aditzera ematen duenez, haurrei emandako tratu txarrek, haurrengan, «besteak etsaiak dira» edota «arazoak daudenean indarkeriarekin konpontzen dira» gisako distortsio kognitiboak eragin ditzakete. Gizarte-sarearen teoriak dioenez ere, isolatuta bizi diren guraso eta zaintzaileek haurrei gainerakoekin elkarrekintzan aritzeko aukera gutxi eskaintzen dizkiete. Ikerketa-esparruei dagokienez, bi atal bereizten dira: ikerketa klinikoak eta alderatzeko taldeekin egindako ikerketak. Ikerketa klinikoetan garbi dager haurrek gurasoek bezala jokatzeko

dutela, hau da, indarkeria erabiltzen dutela, horrela sentitzen dutelarik ezinegona eta ezintasuna saihesten dutela. Ikertzaile anitzek alderatze-taldeak erabili izan dituzte tratu txarrak jasan dituzten haurrak eta beren adinekoekin dituzten harremanak ezagutzeko orduan. Hainbat ondorio atera izan da. Tratu txarrak jasanak zituzten haurrek ez zuten kezka enpatikorik erakutsi negarrez ari zirenen aurrean. Autore hauek ikasi dute ere tratu txar fisikoak belaunaldi batetik bestera transmititzea garrantzitsua dela. Tratu txarrak jasotako haurrek gizarte-elkarreraginean zituzten arazoak euren gurasoek zituztenen antzekoak aurkitu izan dira. Tratu txarrak jasotakoek eta jaso gabeko haurrek jokaera erasokor ezberdinak dituztela egiaztatu zuten ere. Tratu txarrak jasandako haurrek beren guraso edo zaintzaileen antzeko portaera erakusten zutela aditzera eman da beste ikerketa batean. Funtzionamendu kognitiboa neurtu zuten ere, jolas librean erakusten zuten portaeraren behaketa eta gurasoen eta irakasleen iritzia erabiliz. Tratu txarrak jasotako haurrek portaera agresiboagoa zutela konturatu ziren. Baita ere arduragabekeria pairatu zutenek elkarreragin sozialetik ihes egiten zutela. Are tratu txarrak jasotakoek portaera gizartekoi pobreagoa erakusten zutela. Era berean, gelan egokitasun eza nabari zuten eta maizago finkatu behar izaten zituzten diziplina-arauak. Ildo beretik tratu txar fisikoak eta arduragabekeria jasandako haurren portaera ezberdina ageri zela ikasketa-prozesu sozial moderatuaren isla direlako. Testuinguru naturaletan nola portatzen diren tratu txarrak jasandako haurrak ere ikasi izan da; era berean, alde aurretik egindako ikerketetan aurkitutako alde kontrajarriak bat egiten saiatu dira. Haurrak esku-hartze terapeutikoko programetan integratu zituzten, adin bera zutenekin harremanak hobetzeko asmoz. Esku-hartze horien barruan gurasoei zuzendutako terapia ere bazegoen. Ikerketak baieztatu zuen esku-hartze programa horiek positiboak izan zirela, tratu txarrak jasotakoek eta jaso gabekoek arteko elkarreragina positiboa izan baitzen. Tratu txarrak ematen dituzten gurasoak gizartetik isolatzean eta tratu txarrak bizi dituzten familietan gurasoen eta seme-alaben artean sortutako harreman motak ere haurra bultzatzen lezake bere adinekoekin elkarreragin desegokiak sortzera. Talde berrietan, berriz, tratu txar fisikoak jasandakoek jasan gabekoek baino konpetentzia gutxiago eta emozio positibo gutxiago erakusten zuten adin bera zutenekin elkarreraginean. Ikertzean, agertu zen ere, tratu txarrak jasotakoek inongo esku-hartze terapeutikorik gabe ez dutela nahiko elkarreragin sozialean dituzten arazoak konpontzeko. Eraso instrumentalaren eta mehatxuzko jarreraren bereizketa egin zutenean, tratu txarrak jasotako haurrek eraso instrumentalak gehiagotan erabiltzen zituztela ikusi zen, baina ez ziren bereizten hala mehatxuzko jarreraren orduan. Beste batzuk, tratu txarra jasotzen dutenak maila sozial pobreagoa eta lagunen artean sortzen den elkarrekikotasun positibo gutxiago dutela aurkitu zuten. Tratu txarrak jasotako haurren maila soziometrikoa eta lagunekin zuten harremana aztertzean, familiarekin bizi ziren haurrengan aurkitutako aldeak ez zituzten konstatatu. Hala ere, lagun talde baten gustukoa ez den haur batek lagun onak izan ditzake. Laguntasun-mailak estatus soziometrikotan eragin handia duela ere ikusi zuten. Laguntasunak tratu txarrak jasandakoentzat funtzio terapeutikoa ekar dezake, besteekiko konfiantza izaten eta arazoak konpontzen erakusten baitu. Tratu txarrak jasandakoek besteek baino estimu baxuagoa ageri dute. Tratu txar emozionala, berriz, adin berekoekin arazoak izatearekin lotzen dute eta ez norberaren estimu baxuarekin. Eta tratu txar fisikoa, adin berekoekin arazoak izatearekin baina baita norberarekiko

estimu baxua izatearekin ere. Ondorioz, haurtzaroan atxikimendu segurua, funtzionamendu autonomo egokia eta adin berekoekin moldatzeko trebetasuna izatea garapen osasuntsuaren alderdi garrantzitsuak dira. Beraz, oso garrantzitsua da tratu txarrak jasaten dituzten haurrekin esku-hartze terapeutikoak bideratzea gizarte- eta hezkuntza-alorrean. Ez da ahantzi behar ere esku-hartze psiko-terapeutikoaren alboan esku-hartze soziofamiliarren garrantzizkotasuna. Aipatu behar da posible dela esku-hartze biak uztartzea: esku-hartze psikosoziala. Honetan guztian eskola-prozesuak duen eragina ahantzi gabe.

«Globalizazioaren bost aurpegiak. Gizarte interkonektatua» artikulua, gizartearen edozein puntutan gertatzen denak gainerako puntu guztietan duen eragina adieraztera dator. Globalizazioa, hasteko eta behin, ekonomia baino askozaz gehiago dela esan behar da. Bistan da globalizazioak ekonomiaren kontzeptua aldatu duela. Inbertitzaile eta enpresen espekulazio-dinamika bat ezarri espekulazioari bideratutako diru-fluxuen eta ekonomien beharizan errealean arteko desproporzio bat ekarri baitu. Horrekin batera Banku Zentralek ordu arteko eragina galtzen dute. Multinazionalak nazioarteko politikak eta garapen geoestrategikoak diseinatzean beste gisa batean ikusten ditu mendeetan zehar merkatu berriak irekitzeko erabili diren metodoak: herrialdeen arteko gerrak eta inbasioak. Egia da ere enpresa multinazional horiek berealdiko inbertsio ekonomikoak egiten dituztela ikerketa-alorrean. Eurekin agertu da deslokalizazioaren arazoa, beren produktuak garapen-bidean dauden herrialdeetara eramateko eskrupulurik ez dutela erakutsi baitute. Merkatuek ez dute inolako muga fisikorik ezagutzen eta inbertitzaileak ez ditu inolako aldakik mugatzen. Sare birtualen egitura eta alor bioteknologiko bat ere eraiki dute. Teknologia aurreratuek ekonomia globaleko enpresa berrien sektore produktibotik argiena suposatzen dute. Gaur egun, Silicon-eko bailaran lan egiten duten enpresek teknologia aurreratuaren paradigma suposatzen dute. Bestalde, globalizazioak, hiri global, eleaniztun, plurikultural, multietniko eta transnazionala duen eredu berria dakar. Globalizazioa, gizarte teknologizatuen eta ez teknologizatuen arteko banaketa-eredutzat duenik ere bada. Globalizazioa, beraz, garapen-bidean dauden herrialdeentzako lanabes apropos bat gerta daiteke aurrera jotzeko, nahiz eta praktikan demokraziaren degenerazio bat baino ez izan. Aipagarria da, orobat, nola enpresa anitzek merkatu globalean sartzeko eta bere lehiakortasuna kanporako egokitzeko azpikontrataziora eta *outsourcingera* jotzen duten. Lanabes teknologikoei, metodo eta eredu sortaile eta erabiltzaile berriak garatzea beharrezkoa zaie. Internet da gaur egun aurrerakuntza teknologiko garrantzitsuen. Sare Gizartean bizi gara. Informazioak, telematika, informatika eta telekomunikazioetan oinarritutako sare bidezko ekonomia teknologizatu baten parte garrantzitsua egiten du. Bere eboluzioa lau fasetan garatu izan da: militarrean, zientifikoa, sare paraleloen sorkuntzakoan, eta sare publikoaren sorkuntzakoan, alegia. Internet ez da World Wide Web-ren sinonimoa. Horrez gain, datu-baseak eta urrutiko sarrera eta kontrolak, fitxategi-transferentziak, posta elektronikoa, banaketa-zerrendak eta foroak, eta on line solasaldiak ere bada. Globalizazioak zuzeneko eragin okerra ere badu: ingurumena larri zauritzen baitu ingurunekeo baliabide eta lehengaien gehiegizko ustiaketak direla eta. Ingurumenarekin lotutako hainbat hondamendi daukagu gaur egun: biodibertsitate biologikoaren galera mailakatua, itsaso eta

ozeanoen gehiegizko kutsadura, ozono-geruzaren abaildura, hiri mailako kutsaduraren handitzea, berotegi-efektua eta hondakin arriskutsuen trafikoa, besteak beste. Hiri erraldoiak idekitzean kutsadura eta superpopulazioaren igoera ekarri du. Ondorioak ezagunak zaizkigu: hiri eta hiritarren bizi-kalitatean jaitsiera nabarmena agertu da. Era berean, zerbitzu publikoen gabezia eta garraioaren eta industriaren kutsadura jasanezinak bilakatu zaizkigu. Eztenkada horrek energia alternatibo eta eraldagarrietan oinarritutako garapen jasangarriko politikak planteatzera bultzatu ditu hainbat gobernu, erakunde, enpresa eta gizabanako soil. Globalizazioa, baikorrenzako garapen ekonomiko eta aurrerapen soziala denean, ezkorrenzako gutxi batzuen onura eta gizarte eta herrialdeen arteko ezberdintasunak handitzea besterik ez da.

